

**“DONOSTIA, 2013”**  
**Herritarren aldeko konpromisoa**

---

*Konpromisoak honako helburu argiak ditu: hiriak berritzen eta herritarren ongizatea handitzen jarrai dezala; 2013. urtean Tabakalerak ikusizko kulturaren Nazioarteko Gune arrakastatsua izan dadila; 10.500 familia berrik beren etxebizitza-arazoak konpon ditzatela gaur egun abian diren udal sustapenen bidez, abiadura handiko trenak Donostiako komunikabideak nabarmen alda ditzala Atotxako Geltokira iritsi ondoren; Donostiako auzo guztiek kalitateko ekipamenduak eta zerbitzuak izan ditzatela; Donostia ezaguna izan dadila bere parkeengatik, mugikortasun iraunkorragatik eta pertsonentzako politika solidarioengatik; bakea atzera bueltarik gabeko errealitatea izan dadila...*

- I.- Garai erakargarri bezain interesagarria egokitu zaigu donostiarroi; aurrera begira jorratu beharreko gai asko eta proiektu estrategiko ugari ditugu, eta horiek bete ahala 2013. urte sinbolikora hurbilduko gara; urte horretan beteko da **bigarren mendeurrena**, 1813ko abuztuaren 31n Donostia hiriari su eman eta suntsitu zutenetik.

Gertakari lazgarri haren ondoren hiriak prozesu historiko berri bati eman zion hasiera. Herritarrek, Zubietan bilera eginik, hiria **berreraikitzea** erabaki zuten. Geroago – 1863an harresiak bota ondoren eta Plaza Militarra izateari utzi ostean – hiria **birsortzeko** lanak egiten hasi ziren.

Hortik hasita sortu zituzten XIX. mendeko Zabalgune Erromantikoko hirigintza-planak eta auzo berriak; hiria modernizatu eta ordu arte ezezagunak ziren industria-jarduerak eta gizarte eta kultur ekimenak abiarazi zituzten, baita garai hartako zerbitzu publikorik berritzaileenak ere. Gainera, hiriak turismoaren fenomeno berriari ateak zabaldu eta kalitate handiko denden aldeko apustua egin zuen. Donostia benetan hiri kosmopolita eta modernoa bihurtu zen, eta XX. mendeari harrera egiteko prest zegoen, horretarako gogoia, aurrerazaletasuna eta donostiarren laguntza baitzuen.

- II.- Kontua, ordea, ez da bi garai horiek parekatzea, hiriaren **berpizkundera** lortzeko beharrezko bultzada edo keme na berreskuratzea baizik. Gaur egun, hiriko erakundeek eta eragileek onartutako Plan Estrategikoaren arabera, erreferentziazko hiria izan nahi dugu, hiri indartsuagoa eta lehiakorragoa, eta aldi berean, aberastasuna birbanatzeko gai izango den hiri bat, gizarte-kohesioan aurrera egin ahal izateko prestatua, hiri solidarioagoa eta jantziagoa. Horregatik, Donostiak dituen ametsak eta proiektuak pertsonentzat eginak dira. Donostiako herritarrek berek sumatu behar dute nola hobetzen den beren bizi-kalitatea.

Bestalde, ez dugu ahaztu behar XXI. mendean erronka eta arazo berriei aurre egin beharko diegula. Gai eta arazo horien artean aipagarriak dira, esaterako, teknologia berrien garrantzia, hirien arteko lehia, biztanleriaren zahartzea, mendekotasuna duten pertsonak zaintzea, beste herri batzuen garapenerako lankidetzak, genero-indarkeriaren aurkako borroka, immigrazioaren fenomenoak, etxebizitza garestien arazo larria, gizarte eta lan arloko bazterkeria, gizalegerik eza eta abar.

Eta gure gizarte-ongizateari dagokionez maila guztiz onargarria badugu ere, badira lehenbailehen konpondu beharrekoak diren arazo garrantzitsu batzuk ere. Lehentasunak ezarri behar ditugu desberdintasunezko egoerei aurrea hartzeko eta behar diren neurri guztiak hartzeko. Hain garesti daudelako etxebizitzak lortzeko zailtasun handiak dituzten gazteak, arazo ekonomikoak dituzten edo bakardadean biziren adinekoak, etorkinak eta gizarteratzeko eta laneratzeko zailtasunak dituzten taldeak, bazterkeria- eta pobrezia-egoerak, azpiegiturak falta zaizkien auzoak...herritarren kezka horiei guztiei irtenbidea emateko hainbat eratako interesak kontuan hartu eta gizalegezko bizikidetzak eta segurtasuna bermatu behar dira, neurri hezitzaileen bitartez eta auzoetan polizia-mota ezberdinen presentzia areagotuz...

Bere giza balioengatik ezaguna izan nahi duen hiri batek arazo horiek konpondu eta talde horiek gizarteratzeko lan egin behar du, eta hiri hezitzaile gisa jardun behar du gizartearen eta hiriaren garapen zuzenago eta iraunkorrago bat bultzatuz. Horrez gainera, Donostiako Udalak, Alkatearen proposamenak oinarri harturik, herritarren berdintasun eta partaidetza demokratikoaren aldeko konpromisoa bere gain hartu eta hainbat partaidetza-prozesu jarri ditu abian.

III.- Ezin dugu etsi etxebizitza-arazoaren aurrean. Egoera hori dela eta, lehenbailehen Plan Eragile bat gauzatu beharko dugu; horren helburua izango da 2013. urte arte **gutxi gorabehera 10.500 etxebizitza babestu egitea, horien erdia errenta-erregimenean eta %10 prezio tasatuan**. Era horretan Donostiak duen gizarte-arazorik larriena konpondu nahi da: etxebizitzaren prezioa eta hiriko jende gaztea “kanporatzea”. Adostasunez eta lehenbailehen heldu behar diegu egin beharreko hirigintza-lan garrantzitsuei; horien barruan BOE kopuru handi bat sartuko da, batez ere errenta-erregimenean. Eta hori dena erakundeen arteko lankidetzarik handienarekin egin behar da.

“Etxegintza” udal elkarteak 113 milioi euroko aurrekontua onartua dauka 2007. urterako, errenta-erregimen babestuko 980 etxe eta apartamentu egiteko. Nahi dugu gazteek beren bizitza-proiektuak Donostian gauzatzeko aukera izatea, eta horretarako BOP etxebizitza lortzeko bidea eman behar diegu. Udalak arlo honetan bultzatutako politikak Estatuan aitzindari izan arren, politika horiek ahalik eta gehien zabaldu eta ahal bezain azkar gauzatu beharko dira. Eta, aldi berean, etxebizitzaren esleipenari buruzko kontrol eraginkorra egin beharko da, iruzur eta gehiegikeriarik gerta ez dadin.

IV.- Ezinbestekoa da geure buruan konfiantza izatea. Donostiako **berpizkundearen** aldeko apustua egiteaz gainera beste arlo batzuk ere jorratu beharko ditugu, esaterako kultur eskaintza eta zabalkundea bultzatzea, euskararen normalizazioa eta erabilera sustatzea,

ekonomia-sektore berritzaileei eta gazte ekintzaileei laguntzea, gure hiriaren kalitatea eskaini eta turismoa, biltzarrak eta enpresak erakartzea, gure arkitektura-, natura- eta paisaia-ondarea babestea, auzoak biziberritzea, XXI. mendeko Zabalguneak iraunkortasun-irizpideen arabera garatzea eta pertsonen gizarteratzea eta herritarren bizi-kalitatea sendotzea.

Horrez guztiaz gainera, Donostiako gizartearen eta, oro har, euskal gizartearen berrezte moralala lortu behar dugu, bakerako kulturaren hezkuntza erabiliz. Printzipio demokratikoak erabat berreskuratu behar dira, herritar guztiek izan behar duten askatasuna lortuz eta zalantza-giroa desagerraraziz. Donostiak pertsona guztien giza eskubideekiko errespetua bermatu beharko du; ezin ditugu inolaz ere ahaztu biztanleriaren sektore batzuek jasaten duten askatasun-falta eta indarkeria- eta koakzio -egoerak. Bakea lortzea da aurrera begira dugun erronkarik handiena, eta hori da, hain zuzen ere, biktimei egin diezaiekegun omenaldirik onena.

Zenbat aldiz ez ote dugu pentsatu zer nolako bultzada eta susperraldia izango lukeen Donostiak baldin eta terrorismoaren hipoteka eta gure kaleetako tentsio-giroa betiko desagertuko balira? Beti argi ikusi dugu indarkeriak eta tolerantziarik ezak sekulako kalte moralala eta ekonomikoa egiten digutela, eta aurrera egiteko eta zoriontsuago izateko oztopo direla. Horregatik, gogotik ahaleginu eta borroka egin behar dugu terrorismoa desagertzeko eta bake eta bizikidetzaren giroa nagusitzeko.

- V.- Beraz, berritzeko gogo horrek bultzatu egiten gaitu gero eta ahalegin gehiago egitera eta beharrezko adostasunak bilatzera; era horretan jokatzuz, beharrezko proiektu guztiak garaiz gauzatu eta Donostia hiri ireki eta kultu moduan izan behar bizitasuna, dinamismoa eta aitormena bereganatuko ditu. Foru Aldundiaren errezeloak alde batera utzita, Gipuzkoako hiriburuak elkartasunez eta arduraz jokatu behar du Gipuzkoako lurraldearen helburu handiei dagokienez eta Euskadiren egituratze ekonomiko eta sozialerako funtsezkoak diren proiektuetan, betiere Aldundiarekin eta Eusko Jaurlaritzarekin batera lidergoa partekatuz.

Kontua da, behintzat, horri dagokionez proiektu estrategiko ugari ditugula. Horien artean aipa ditzakegu, esaterako, era askotako proiektu "enblematikoak", BOE eta prezio tasatuko etxebizitzaren Zabalgune berriak antolatzen dituzten kalitateko hirigintza-planak, kultur programazioa eta ekoizpena bultzatzeko jarduerak, pertsonentzat gizarte-zerbitzuen sareak handitzen dituztenak, hiri mugari berriak, paisaia eta parkeen sarea zaintzea, garraio eta komunikabideen azpiegiturak eta sektore berritzaileen enpresak errazago ezartzeko programak. Horiek guztiak plan orokor eta bereizi baten barruan daude, kalitate, iraunkortasuna, ingurumenaren iraunkortasuna, berrikuntza eta herritarren ongizatea gidari harturik.

Azter ditzagun **proiektu estrategiko** horien ezaugarri batzuk:

- Aurreikusitako Etxebizitzetarako Zabalguneak garatzea leku hauetan: Auditx-Akular (Altza), Morlans, Pagola, Txomin, Nerecan-Pescafria (Altza)... BOEren Plan Eragilearen barruan, iraunkortasun eta arkitektura bioklimatikoko irizpideak erabiliz.
- Auzoak eraberritu eta biziberritzeko Programak, dagoeneko martxan.
- Adinekoei eta menpekotasuna duten pertsoneri laguntzeko Programa, eta gizarte zerbitzuen sarea handitzea.
- Immigrazioari buruzko II. Plana, etorkinen gizarteratzea errazteko, beren nortasuna errespetatuz.
- Ametzagainako parkea, 37 hektareakoa, Altza-Intxaurren-Loiola eta Martune auzoei arnasa ematen dien birika.
- Martutene eta Loiolako Erriberak arteko Urumeako ibai-parkea.
- Auzoak elkarrekin lotuko dituen igarobide berdea eta bidegorrien sarea; Morlansen Eusko Tren-en lehengo tunelak berriro erabiltzea bidegorri moduan.
- Klima-aldaketaren arriskuari aurre egiteko eta CO2 gutxitzeko ekintza-plana.
- Pasaiako badia eraberritzea, ekonomi iraunkortasuna eta ingurumen-iraunkortasuna oinarri harturik.
- Mugikortasun iraunkorraren Plana eta hiri-tranbiaren aukera.
- Eusko Tren-en Topoa hiriarteko Metro bihurtzea, Intxaurren eta Altzan geltoki berriak jarritz.
- Herritarrei Informazioaren eta komunikazioaren teknologiak ezagutu eta erabiltzeko aukera ematea eta administrazio-kudeaketa elkarrengarria eta gardentasuna bultzatzea.
- Udal administrazioaren eraberritzea eta modernizazioa lortzea Eraikinei buruzko Plan Zuzendariaren bitartez eta teknologia berriak aplikatzea.
- Eraberritutako Victoria Eugenia antzokian arte eszenikoak eta musikalak landu eta zabaltzeko laguntza ematea.
- Tabakaleran Kultura Garaikideko Nazioarteko Zentroa jartzea eta ikusizko kulturaren sektoreko industria eta sorkuntza bultzatzea.
- San Telmo Museoa handitu, birmoldatu eta Museo berri gisa antolatzea, bere bildumak osatuz eta lurraldearen "oroigarriak" jasoz.
- Donostia Europako hirien Saretan sartzeko Plana, denontzat interesgarriak programei begira eta nazioarteko lankidetzeta-gaietan.
- Oroimenaren Lorategia, Loiolako Erriberetan, terrorismoaren biktimen oroimenez.
- Aieteko Jauregiko Gizarte Eskubideei buruzko Zentroa sortzea, eraikina babesteko arauak erabat errespetatuz.
- Aquarium-en berrikuntzaren II. fasea eta bertako ikerkuntza-lanak.
- Metropoli Komunitateko garraiobideen Partzuergoa; garraio-sistema guztiak bere barruan hartu eta horien arteko koordinazioa eta tarifa bateratuak bermatuko ditu.
- Urumea ibaiaren gaineko bi zubiak eta oinezkoentzako pasabidea.
- Urumeako II. Ingarabidea eta Autobia, Saihesbideko trafiko-pilaketak arintzeko.
- Espainiako Gobernuaren eta Eusko Jaurlaritzaren bidez abiadura handiko tren Atotxara iristea eta hura birmoldatzea.
- Federico Garcia Lorca Pasealekuan autobus geltokia egitea, garraio-sistema desberdinen arteko lotura errazteko.
- Hondarribia-Donostiako aireportua handitzea.

- Mugaz gaindiko lankidetzaren bidez, Biarritz-Baiona-Donostia eurohiria sendotzeko eta denon interesak defendatzeko.
- Igeldo Mendiko jolas-parkea modernizatzea.
- Miramongo bioteknologiaren eremuan ikerkuntza eta berrikuntza sektorea garatzea eta Teknologia Elkartearen bidez Zuatsuko (CEMEI II) ikus-entzunezko Poloaren sortzea.
- Merkataritza, ostalaritza eta turismo-sektoreko enpresentzako Plan Zuzendaria.
- Sagueseko Itsas Pasealekua Monpaseraingo luzatzea pasabide ekologikoaren bidez.

Zerrenda horretako proiektu gehienak dagoeneko martxan daude eta beste batzuk prestatzen ari dira. Dena dela, horiek denak erabateko plangintza baten atal dira, Plan Estrategikoaren baten barruan; eta bertan adierazitako egitasmoek eta etorkizuneko aukerak hiri sendoa bat erakusten digute, lidergorako gaitasuna duen hiri bat, garai berriekin gaztetu eta bere nortasuna galdu gabe mundura zabalik egon nahi duen hiri bat.

Gipuzkoako hiriburuak ez du ahazten Metropolikomunitatearen beharrezko kudeaketa-egiturak sortu behar direla Pasaiako Badiaren eraberritze-proiektuak gauzatzeko, zaborren arazoari erabateko irtenbide hitzartua emateko, hiri-hondakinen %50 birziklatzeko helburua betetz, Hondarribia-Donostiako aireportua sustatzeko edo Garraio Partzuergoa eratzeko.

Donostiak, mugaz gaineko lankidetzaren bidez, Euskal Eurohiriaren proiektua bultzatu behar du; hiri pasabide horrek 50 kilometroko tartea du Baionatik Donostiaraino. Ekonomia, gizarte eta kultura garatzeko ardatz horri esker Europako erabakitzeko-eremuetan indar gehiago egiten lagun dezakegu. Hasteko, euskal kostaldeko hiriek elkar harturik konpondu beharko ditugu komunikazio-azpiegiturretan egiteko ditugun lanak (aireportuak eta trenbide-sareko loturak) eta kultura eta turismo-sustapenerako politikak koordinatu beharko ditugu.

VI.- Helburu horiek guztiak kontuan izanik, Donostiak aurrera begira sinbolismo handiko data bat ezarri behar du bere proiektuak gauzatzeko, hiri-eredu bikain horrekin ilusioa hartzeko eta era horretako ahalegin kolektibo handiari zentzua emateko. Horregatik, alde aurretik, proposamen hau egiten dugu, hiria berreraikitzen hasi zenetik berrehun urte igaro izana ospatzea, eta **2013. urtea izan dadila erabat berriutako gure hiriaren helmuga.**

Horretarako donostiarrei eta gizarte eta ekonomia mailako eragile guztiei konpromiso aktiboa hartu beharko dutela azaldu beharko zaie, horien laguntza eta parte-hartzea lortzeko. 2007ko abuztuaren 31n bultzada emateko eta jarraipenerako Batzorde bat sortuko dugu, erakundeek, entitateek eta kolektiboek osatutakoa izango da (horien artean, Plan Estrategikoaren eta Gizarte Kontseiluaren Batzordea), eta horren ardura izango da “Donostia 2013” konpromisoa bide onetik joan dadin dinamizatzea eta kudeatzea.

# Donostia

## Zure hiri laguna

Berehalako egoera politikoa baino haratago joaten jakin behar dugu, eta epe luzerako ikuspegiz, 7 urte horietaz baliatu proiektu guztiak errealitate egiteko, alderdien arteko gatazkak ahazteko, Erakundeen arteko antagonismoa gainditzeko, sektore eta talde kontserbadoreen jarrera inobilistak gainditzeko eta Donostiari diogun leialtasun eta fideltasunarekin aurrera egiteko, dugun erantzukizuna kontuan izanik, gure eskubideekin eta betebeharrekin. Hiria gobernatzeko eginkizuna hiriaren ordezkarien eta erakundeen artean gauzatu beharrekoa izango da, aurrera egiteko proiektuak bideratu ahal izateko eta pertsonen bizi-kalitatea bermatu ahal izateko.

Asmo horrekin eta bakea eta askatasuna laster lortzeko itxaropenarekin sortu da hiriaren aldeko konpromiso hori, erakundeei eta herritarrei zuzendutako konpromisoa. Izan ere hitzarmen sendorik gabe, Erakunde bakoitzak egin beharreko inbertsiorik gabe eta ekonomia, gizarte eta kultura mailako eragileen parte-hartze demokratikorik izan gabe, ez dugu asmo on horiek garaiz lortzerik izango, eta ez dugu lortuko XXI. mendeak jarriko dizkigun harresi berriak lurrera botatzea.

Etorkizunari begira Donostia eskuzabaltasunezko ikuspegiarekin sendotzea izango da “hiria bere errautsetatik berriro sortzeko” erabaki heroikoa hartzeko Zubietan 1813an elkartu ziren gure aurrekoei egin ahal izango diegun omenaldirik onena. Azken finean, herritarren aldeko konpromiso bat proposatu dut, 2013an Donostiaren berreraikuntzaren bigarren mendeurrena ospatzeko, egun horretarako bakea eta ongizatea lortuz donostiar guztientzat.

ODON ELORZA  
Alkatea.

Donostia, 2007ko maiatza.